

Bizi muga

Soinu txikian



POR KEPA JUNKERA

EL curso normal de las cosas hace encajar los diferentes acontecimientos de manera perfecta, como si de un puzzle de millones de piezas se tratara. Así, hechos acaecidos en nuestras vidas que en un primer momento representan disgustos y hasta grandes decepciones, con el paso del tiempo encajan en el engranaje de nuestro destino, como si su ausencia fuese incluso inaceptable para poder vivir el momento presente.

En Alemania me acabo de encontrar un curioso caso que me ha hecho pensar mucho sobre estas reflexiones que lanzo.

La Franja de la Muerte, que es como se llama

ma a una gran reserva natural que se extiende a lo largo de la ya extinta frontera situada entre las dos Alemanias, la del Este y la del Oeste, es el ejemplo de todo esto.

Hace medio siglo Alemania quedó dividi-

da en dos y los 1.400 kilómetros de frontera que surgieron de ahí se cubrieron con alambrado de espino, minas, trampas y gran cantidad de soldados que evitaban que la gente de la parte oriental escapara a la occidental.

Pues bien, en este oasis de paz que nadie quería pisar por miedo a las represalias, comenzó a gestarse de nuevo la vida y de manera alucinante. Este cinturón verde alberga hoy en día hasta 600 especies en peligro de extinción convirtiéndose en uno de los lugares más atractivos de Alemania si de disfrutar de la naturaleza hablamos.

La vida, siempre conquista el terreno per-

dido, las ilusiones abandonadas o incluso partes del alma humana que yacían dormidas. La guerra, los conflictos, los odios... a veces son el motor de una evolución inesperada y, en algunos casos, y sólo en algunos, el punto de partida del obligado devenir del destino que, a veces, como en este caso, asombra a cualquiera.

Quizás algún día, en vez de hablar de un punto geográfico en concreto, terminemos describiendo el estado general del planeta. La duda es si nosotros estaremos o no en el mismo. Yo apuesto que sí, pero sólo con eso no vale. Hay que formar parte del cambio y no ser el culpable del mismo. ¡A por ello!

'Xentimorik gabe' antzezlanak itxiko du, gaur, Antzerki Aroa

EMANALDIA GAUR, ARRATSALDEKO 20.30ETAN, IZANGO DA

Antzezlanak bi musikariren gorabeherak taularatuko ditu, inprobisazioa nagusi den lan honetan

MIREN MINDEGIA

IRUÑEA. Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak (NAE) antolatutako Antzerki Aroaren aurtengo bigarren eta azken emanaldia eskainiko da gaur: *Xentimorik gabe*. Antzezlanaren arratsaldeko 20.30etan izango da, NAE-n.

Xentimorik gabe lanean, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa herrialde herrialde ibili diren musikariren azalean sartuko dira: Ray eta Nick. Bi hamarkada lehenago amaigabeko birari ekin zioten munduan zehar: Frantzia, Amerika, Errusia, Kamerun, Mongolia... Ez dago ez hiri handi edo herrixkarik Ray eta Niken artean gozatu ez duenik. Aurten ordea, herrimina sentitu dute, eta Honorio doktoreak etxera lehenbailehen itzultzea gomendatu die.

Gure artean daude, beraz, 20 urteko mundu bira musikareren berri emateko irrikitan. Asier Sotaren zuzendaritzapean eta Pako Aristiren letren moldake-



Inazio Tolosa, Asier Sota eta Ramon Agirre. ARGAZKIA: RUBEN PLAZA

tekin, musikaren historiako abesti ezagunak izango dira antzezlan honetako osagai nagusia. Hala, Ray eta Nickek Elvis Presleyren *Jailhouse rock* abestiataularatuko dute; Georges Brassens-en lagunak izan zirela gogoratuko dute, eta Adriano Celentanorekin izandako

topaketa ere kontatuko dute. Frantsesez, italiaraz, amerikanoz, euskaraz, gaztelaniaz, txinglosez... Edozein hizkuntzatan abesten dituzte beren bertsioak. Dena, hori bai, inprobisazioa antzezleentzako tresna nagusi bilakaturik. Agirrek gitarraren notak dantzan jarriko

dituen bitartean, Tolosak tronpetak, klarinetak, harmonikak, eta beste tresnak joko ditu.

Pako Aristi idazlearen babesa izan dute antzezleek doinu eta letren moldaketa egiteko, eta Asier Sotak gidoiarekin lagundu die, lana zuzentzeaz gain.

Larunbatean izango da bertsolari berrien Xalto Sariketa

Goizuetako udaletzeko ganbaran taularatuko dira 15 bertsolariak

IRUÑEA. Larunbat honetan, hilaren 17an, jokatu da Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Goizuetako Udalak bi urtetik behin antolatzen duten bertsolari berrien Xalto Sariketa, Goizuetako Udaleko ganbaran. Lehia goizean hasiko da, 11.00etan eta, sailkapenak burutu-ta, finala 17.00etan jokatu da.

Aurten, hitzez borrokatu beharko duten 15 bertsolariak Ekaitz Astiz (Iraizotz), Aimar Karrika (Auritz), Ioar Tainta (Lesaka), Haizea Beruete (Iruñea), Patxi Castillo (Bera), Irati Majuelo (Iruñea), Iker Gorosterrazu (Ituren), Iñigo Sagastibeltza (Leitza), Mikel Azpiroz (Leitza), Jose Luis Barberia *Zili* (Leitza), Xabier Maia (Elizondo), Oier Amiano (Elizondo), Kotte Plaza (Irurita), Amaia Elizagoien (Mugairi) eta Joseba Zabaleta (Leitza) izango dira. Aurkezle lanetan Alaitz Rekondo arituko da eta epaile gisa Nerea Bruno, Ekintza Landa, Xabier Terreros eta Gaizka Sarasola.

Antolatzaile nagusiez gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskarabideak ere parte hartzen dute bi urtez behin (Izeta sarietarekin txandakatu) ospatzen den eta gazteei aukera bat eskaintzea helburu duen lehiaketa honetan. >M.M.P.

KRITIKA > LIBURUAK

Turbante eta burken azpian

NIRE TURBANTEAREN SEKRETUA

Jatorrizko izenburua: El secret del meu turbant. Egileak: Nadia Ghulam & Agnès Rotger. Itzultzailea: Aintzane Atela. Argitaratze-urtea: 2011. Argitallea: Erein (Oroimenez barrena).

POR INMA ERREA

IRUZKIN hau idazteari ekin nion egunean -2011ko abenduaren 6an-, Ashura festa ospatzen ari ziren Afganistanen, Karzai Afganistango presidentea Europar zebilen bisitan bere herrirako dirua bildu nahian eta bonbek 59 pertsona hil eta ia 200 zauritu zituzten Kabu-

len, Mazar-i-Sharifen eta Kandaharren izandako leherketetan. Dena ohikoa, arrunta, kasik normala, gure komunikabide mendebaldarretan. Niretzat, ordea, egun horretako albisteak ez ziren izan ez ohiko, ez arrunt ez normal. Ordurako nik Afganistan pitin bat hurbilago nuen, eta nireago sentitzen nuen, lerrootan iruzkintzen ari naizen liburua irakurri berria nuelako.

Zalantzarri jotzen da noraino aldatzen ahal duen literaturak errealitatea. Duda bidezkoa da, liburuek euskarri ahulak diruditelako munduko bortizkeriari aurre egiteko, eta idazleen ahaleginek

gutxi ahal dutelako bortizkeria horren kontra. Alabaina, aldaketa txiki batzuk eragin ditzakete, eta horren adibidea da, nire ustez, *Nire turbantearen sekretua*, Nadia Ghulam afganiarrak eta Agnès Rotger katalanak elkarren artean idatzitako liburua.

Ez dakit *Nire turbantearen sekretua* literatura den (hertsiki hartuta ez, hain segur), baina gure bihotz-begietara iristeko ahalmena du.

Liburuak Nadia Ghulam neska afganiarraren ibilerak eta bizipenak kontatzen ditu, oraindik haur zelarik bonba batek aurpegiaren eta gorputzaren parte handi bat desitxuratu zionetik kalte horiek konpontzeko jada hogeita bat urteko emakume bat zelarik Bartzelonara bidaiatu zuen arte. Talibanen aurretiko gerra-giroa, talibanen erregimena eta estatubatuarren esku-hartzeko

militarraren ondorengo gatazkak eta gorabeherak barne hartzen dituen hamaika urte inguruko tar-te horretan, Nadiak bizipen mingarri ugari pairatu zituen, baina aldi berean zorigaitzari aurre egin zion hildako anaiaren nortasuna bereganaturik eta bere familiaren euskarri bihurtuta.

Zelma mutikoaren itxura bereganatutako Nadia neskaren ibilerek nobela pikareskoen oihartzuna dakarkigute behin eta berriro. Baina, aldi berean, Afganistanera lekualdatzen gaituzte, Mendebaleko gure ikuspegitik mugiarazi eta hango jendearen tokian, haien turbante eta burken azpian, jartzera behartzen gaituzte. Behin horiek irakurrita ezin ditugu Afganistango berriak bestela bezala ikusi edo entzun, jakin badakigu eta Ashurako ospakizunek gure Eguberriek

beste munta dutela, edota Zelma-Nadia, erlijioari dagokionez, fede handiko musulmana dela, eta, politikaren arloan, Karzairi eman ziola botoa (nahiz berdin ziola nori eman, desira bakarra bozkan parte hartzea zuelako). Behin liburu hau irakurrita deserosoago sentiaraziko digu jakiteak telebistan egunero ikusten ditugun leherketa horietako batek zauritu zuela Nadia eta beste batek hil ziola Zelma anaiakutuna. Bihotzean min izango dugu haiengatik eta munduan halako krudelkeriak sufritzen dituzten guztiengatik. Haiengandik hurbilago sentitu eta beste modu batean iritziko diegu hango berriei. Hori guztia indar handiz transmititzen baitu Aintzane Atelak egindako itzulpenak, azken orrazketatxo baten faltan gelditu diren akats txiki batzuk gorabehera.